

## TREBAKUNTZA 2014-03: *DESBERDIN*

Gaztelaniaren eraginez, asko ugaritu dira “*Herri desberdinetan aurkeztu zuten proiektua*” edo “*Herriko elkarte desberdinen erabakia izan da*” erako esaldiak.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Eskualdeko kultur eragile desberdinek sinatu dute agiria.*
2. \* *Lau langile desberdinek esan dute greba egingo dutela asteartean.*
3. \* *Bizkaiko herri desberdinetan arazoak izan dituzte uholdeekin.*
4. \* *Hamalau lan desberdin aurkeztu zituzten, eta azkenean gazteenak irabazi du.*
5. \* *Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko kale desberdinetan aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeei.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.org](http://www.uma.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

## ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Euskaraz baditugu “*desberdin*” horren ordeaz erabiltzeko forma egokiak, eta kasu batzuetan, hitza bera kenduta ere esaldia ondo geratzen da.

1. Ad. Eskualdeko **zenbait/hainbat kultur eragilek** sinatu dute agiria.
2. Ad. **Lau langilek** esan dute greba egingo dutela asteartean.
3. Ad. Bizkaiko **herri batzuetan** arazoak izan dituzte uholdeekin.  
Bizkaiko **zenbait herritan** arazoak izan dituzte uholdeekin.
4. Ad. **Hamalau lan** aurkeztu zituzten, eta azkenean gazteenak irabazi du.
5. Ad. Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **kale batzuetan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeak.  
Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **zenbait kaletan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeak.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.org](mailto:iratxe.udalak@uema.org) (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99